

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN BULEGO BERRIAK

Donostia/San Sebastián, 2001-VII-11

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Odon Elorza, Donostiako alkate jaun agurgarria,
Euskaltzainkideak,
Orotariko Euskal Hiztegiaren prestatzaileak.

Eguerdi on!

Zuri, alkate jauna, ene eskerrik beroenak hemen baikara bilduak Xalbador kalean dagoen Euskaltzaindiaren eta bereziki *Orotariko Euskal Hiztegiaren* langunea. Donostiako Udalak utzi dio Euskaltzaindiari hain ederki apaindua den toki hau. OEH-n ari diren langileek ukanen dute behar den lekua, behar den agria beren ikerketen kudeatzeko.

Ez dezagun ahantz hiztegegintza dela Euskaltzaindiak daukan eginbiderik nagusiena, edozein Akademiak bezala. Ibon Sarasolaren manupean zazpi iker-tzaileek aurrera eramaten dute denek ospatzen duten hiztegia, Euskal Herri osoak beharrezkoa duena. Hamabi liburuki agertuak dira jadanik, hiruzpalau gelditzen dira obraren bukatzeko. Ez da dudarik egoitza berri honi esker kar eta kemen berriarekin segituko dutela aspaldian hasi den lana.

Hiztegegintza alde batetik baina gramatika, Euskal Herriko hizkuntz atlasa, Onomastika eta Literatura bestetik, hona zertan murgildua den Euskaltzaindia, hona nola ari den lanean euskararen onerako eta euskaldun guztientzat.

Alkate jauna, mintzalditxo hau bukatzean nahi dizkizut berriz ere ene eskerrik beroenak bihurtu Euskaltzaindiaren izenean, bai Donostiako Udalarari eta dauzkan zerbitzu teknikoei ere. Esker mila bihotz bihotzetik.

ODON ELORZAREN HITZAK, OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN BULEGOAREN AURKEZPENEAN

Donostia/San Sebastián, 2001-VII-II

Ohore berezia da niretzat, Donostiako alkatearentzat, Euskaltzaindiaren lan bulego honetan egotea.

Donostiako Udalak gune hau utzi zuen Euskaltzaindiak bere eginkizunak egoki bete zitzaizkion. Erakunde honek egiten duen lana aitortu eta balioan jartzeko modu xume bat besterik ez da.

Euskara euskaldun guztion ondare kolektiboa den konbentzimendu osoa dugu. Euskaldunena eta erdaldunena.

Ondare hori babestu eta bultzatu egin behar dugu gure Herriak beharrezko duen hizkuntz normalkuntza arrazoizko irizpideekin lortu ahal izateko.

Helburu horretan egiteko dagoen bidea oso da luzea. Guztiok batean egin behar dugu ibilia, adimenez, euskara eraso bezala erabili gabe eta alor guztietan egin behar den plangintza egokiarekin.

Une honetan Udalak egina dauka bere Plangintza Estrategikoaren lana. Dokumentu honetan hiriaren etorkizunean euskarak bete behar duen eginkizunari buruzko erreflexio eta helburuen kapitulu bat sartzen da.

Eta dokumentu horrek dioen bezala, egia da, Donostiak euskararen hiri-burua izan behar duela, hori bideratzeko beharrezko diren erabaki eta konpromisoak hartuz.

Azkenik, Donostiako Alkatearen eginkizun bezala, euskararen aldeko nire jarrerara adierazi nahi dut. Ez ezazue inork zalantzarik izan.

* * *

Es un honor para mí como Alcalde de San Sebastián estar hoy aquí, en este local de trabajo de Euskaltzaindia.

El Ayuntamiento cedió este espacio para que Euskaltzaindia desarrolle una de sus labores. Es una manera sencilla de reconocer y valorar el trabajo y la función imprescindible que desarrollan.

Estamos todos convencidos de que el euskera es un patrimonio colectivo de todos los vascos. De los euskaldunes y castellanoparlantes.

Un patrimonio que tenemos que defender e impulsar, siempre con criterios razonables para conseguir la normalización lingüística en nuestro País.

Hay todavía un largo camino por delante en ese objetivo. Y lo tenemos que recorrer juntos, con inteligencia, sin utilizar el euskera como arma arrojadiza y con un buen trabajo de planificación en todos los campos.

En estos momentos el Ayuntamiento ha empezado el trabajo de elaboración de su nuevo Plan Estratégico. Pues bien, en este documento, se incluye un capítulo de reflexiones y objetivos en lo que se refiere al papel del euskera en el futuro de la ciudad.

Y es verdad, como dice ese documento, que Donostia debe ser la capital del euskera, adoptando las medidas y compromisos que lo hagan posible.

Por último, como Alcalde de San Sebastián, quiero expresar mi disposición en favor del euskera. No tengan Uds. ninguna duda.